

Zer egin ostegunetan

Ostegunetan egin daitezkeen planei buruz arituko gara jarduera honetan. Pintxo-poteak indar handia dauka baina, ikusiko dugunez, ez da plan bakarra. Gai horri buruzko irratsaio bat entzungo dugu eta bukaeran guk zer egiten dugun kontatuko.

Ariketa hauek egin ditzakezu:

- Irratsaioa entzun eta galderari erantzun.
- Plan alternatiboei buruzko irratsaio bana entzun -bi taldetan jarrita- eta gero elkarri kontatu.
- Komentatu ostegunetan zer egiten duzuen eta zer egin dezakezuen elkarrekin.



Eta ostegunetan zer?

Pertsona batzuek zer egiten duten ostegunetan kontatu dute. Apuntatu kontatu dituzten planak.



Markatu irratiko entzuleek esan dituztenak.

- Kiroldegira joaten da.
- Futbolean jokatzera joaten da.
- Pintxo-potera joaten da.
- Sagardotegira joaten da.
- Igeri egitera joaten da.



Ostegun alternatiboak

Ostegunetan egin daitezkeen beste plan batzuen berri entzungo duzue. Jarduera hau egiteko, taldea bitan banatu eta talde bakoitzak plan bat entzungo du. Gero, plan desberdina entzun duzuenak binaka jarri, eta elkarri kontatu entzun duzuenak.

1. Ostegun alternatiboak Oñatin

Entzun Oñatin ostegunetan egiten duten plan bati buruzko audioa, eta erantzun aurreneko 4 galderari.

Ondoren, kontatu beste taldeko lagun bati entzun duzun plana (horretarako, aprobetxatu erantzun dituzun galderak): zer egiten duten, noiz...

Segidan, lagunak kontatuko dizun plana gogoan hartuta, erantzun falta zaizkizun galderari.



http://www.ikasbil.eus/c/document_library/get_file?uuid=6e50306f-f9ef-41a0-b5a5-6c8c77a34966&groupId=10138

Hiztegia: Ekintza: ekitaldi, acto, actividad Antolatu: organizar

1. Zer antolatzen dute Oñatin?

2. Noiz antolatzen dituzte ekitaldiak?

3. Norentzat dira batez ere ekitaldi horiek?

4. Helduen irakurle-taldeak zenbat aldiz biltzen dira?

Lagunaren atala entzundakoan Gasteizi buruz erantzuteko galderak.

5. Zer antolatzen dute Gasteizen?

6. Noiz antolatzen dituzte ekitaldiak?

7. Ekitaldi horien helburu bat da gai batzuei buruz pentsatzea. Eta bestea?

8. Zeri buruz izan zen azken ekitaldia?

2. Ostegun alternatiboak Gasteizen

Entzun Gasteizen ostegunetan egiten duten plan bati buruzko audioa, eta erantzun aurreneko 4 galderari.

Ondoren, kontatu beste taldeko lagun bati entzun duzun plana (horretarako, aprobetxatu erantzun dituzun galderak): zer egiten duten, noiz...

Segidan, lagunak kontatuko dizun plana gogoan hartuta, erantzun falta zaizkizun galderari.



http://www.ikasbil.eus/c/document_library/get_file?uuid=549d66b9-d384-4325-8aa5-14a8458365c6&groupId=10138

Hiztegia: Ekintza: ekitaldi, acto, actividad Antolatu: organizar

5. Zer antolatzen dute Gasteizen?

6. Noiz antolatzen dituzte ekitaldiak?

7. Ekitaldi horien helburu bat da gai batzuei buruz pentsatzea. Eta bestea?

8. Zeri buruz izan zen azken ekitaldia?

Lagunaren atala entzundakoan Oñatiri buruz erantzuteko galderak.

1. Zer antolatzen dute Oñatin?

2. Noiz antolatzen dituzte ekitaldiak?

3. Norentzat dira batez ere ekitaldi horiek?

4. Helduen irakurle-taldeak zenbat aldiz biltzen dira?

Ostegunetako planak

Jarri talde txikitan eta komentatu 2 puntu hauek.

1. Zer egiten duzue ostegunetan?

Adibidez:

- *Nik etxean geratzen naiz baina seme-alabak ostegunero joaten dira pintxo-potera.*
- *Ni lehen ez nintzen ateratzen baina orain kuadrillarekin ateratzen naiz.*
- *Gu batzuetan zinemara joaten gara.*

2. Ostegunetan plan bat baino gehiago egin daitezke: pintxo-potera joan, liburutegietako ekitaldi batera, hitzaldi batera, erakusketa bat ikustera, zinemara... Zuek zer nahiago duzue? Adostu zer egingo duzuen elkarrekin.

Espresioak:

- *Niri gustatuko litzaidake pintxo-potera joatea.*
- *Nik nahiago dut hitzaldi batera joan.*
- *Eta zinemara joaten bagara?*



Erantzunak eta transkripzioak

Eta ostegunetan zer?

- Pintxo-potera joaten da.
- Sagardotegira joaten da.
- Kiroldegira joaten da.

ESATARIA. Pintxo-potea. Oso errotuta daukagu Euskal Herrian. Bueno, pintxo-potea, juevintxo ere deitzen diote zenbait tokitan. Bueno, badira ostegunetan pintxo-potera joateko ohitura hartuak dutenak, tragoa eta pintxo pare bat jan, eta arratsaldeko giroaz gozatzeko ohitura gero eta errotuago dago gure artean.

Zer egiten duzue ostegunetan? Pintxo-potera joaten zarete edo badaukazue beste alternatiba bat? Edo etxean geratzen zarete? Ez dakit denbora-pasa. Zer egiten duzue ostegunetan? Ze ostegunak badauka izaera berezia: ez da asteburua baina asteburua iristeko deseatzten gaude eta gorputzak zerbait diferentea egiteko eskatzen digu. Zuei gorputzak zer eskatzen dizue? Ostegunetan zer egiten duzue?

Entzule batek dio: "Pintxo-pote!!!!!!" Eta gero, zera, harridura-ikurrak jarri ditu, 5 bat edo. Pintxo-pote, esaten du berak. Beste batek dio: "Irunen Kabi gorrin bertso-gaua egiten dugu ostegunetan". "Osteguna polideportibora joateko egun egokia da jende gutxiago egoten delako." Beste batek dio: "Ostegunetan sagardotegira joaten gara edo bestela sozietatera." Eta gero idatzi du: txotx. Eta beste lagun batek: "Orain gutxira arte ostegunetan UEFA (futbol) partidak ikusten nituen (bueno, Europa ligakoak izango dira). Plan berria bilatu beharko dut orain datorren denboraldira arte, ze badakizue Athletic Europa ligatik kanpo geratu dela.

Eta ostegunetan zer?

Oñati

1. Zer antolatzen dute Oñatin?
(Ostegun kontalariak)
2. Noiz antolatzen dituzte ekitaldiak?
(Hileko azken ostegunean)
3. Norentzat dira batez ere ekitaldi horiek?
(Umeentzat)
4. Helduen irakurle-taldeak zenbat aldiz biltzen dira?
(Hilean behin)

ESATARIA 1. Hala ere, Euskal Herrian barrena konturatu gara ohikoak direla pintxo-poterearen alternatiba izan daitezkeen ekintzak. Euskarari, literaturari, musikari, berdintasunari edota kirolei eskainitako ekintzak izan ohi dira, eta ekintza hauetako hainbat ezagutzeko asmotan, erronda txiki moduko bat egingo dugu segidan. Laster intsiko gara Oñatira. Bertan Udal liburutegian Marina Etxegoien aurkitu dugu. Marinak azalduko digu zer diren bertan antolatzen dituzten ostegun kontalariak.

MARINA ETXEGOIEN. Beno ba ostegun kontalariak dira, ipuin kontaketa-saioak, umeentzat, haur-liburutegian egiten direnak (direnak) eta egiten dira beti hileko azkenengo ostegunean. Egia esan guk osteguna aukeratu genduan (genuen) baina inongo arrazoirik barik.

ESATARIA 2. Ez, beraz, pintxo-poteari konpetentzia egiteagatik.

MARINA ETXEGOIEN. Ez, ez. Noski, hau ume txikientzat da eta arratsaldeko seieta izaten da. Baina, bueno, erabaki eben (zuten) finkotasun bat emotea (ematea) ona zela ez? Eta horregatik aukeratu genuen osteguna, eta esan... ze izen jarriko diogu, ba ostegun kontalariak, eta hola geratu zen. Eta ia lau urte goaz ekintza honekin, eta ostegunero, hilerro-hilerro, ostegunetan ipuin-kontaketa saioa egiten.

ESATARIA 1. Soilik ume txikientzat. Marina?

MARINA ETXEGOIEN. Beno, egoten dira... Hil batean izaten da 3-5 urtekoentzat, txikientzat, eta hurrengoan 6tik aurrera, 6-10 urte bitartekoentzat.

ESATARIA 1. Helduekin, zer?

MARINA ETXEGOIEN. Helduekin bere (ere) egiten ditugu.

ESATARIA 2. Gainera, Marina, liburutegian irakurle-talde bat ere baduzue ez, oker ez banaiz?

MARINA ETXEGOIEN. Beno, irakurle-talde bat baino gehiago dagoz (daude) Dago tertulia euskaraz...

ESATARIA 2. Hori da.

MARINA ETXEGOIEN. Euskarazko taldea eta gero beste bat dago gaztelaniaz. Eta horrek (horiek) hilean behin bere (ere) batzen dira liburutegian.

Gasteiz

1. Zer antolatzen dute Gasteizen?
(Ostegun feministak)
2. Noiz antolatzen dituzte ekitaldiak?
(Hileko azken ostegunean.)
3. Ekitaldi horien helburu bat da gai batzuei buruz pentsatzea. Eta bestea?
(Elkartu eta ondo pasatzea.)
4. Zeri buruz izan zen azken ekitaldia?
(Maitasun erromantikoei buruz.)

ESATARIA 1. Bueno, ostegun alternatiboan bila, Oñatitik autobidean barrena Gasteizera egingo dugu, gure gaurko azken geldialdia egiteko. "Ostegun feministak" lelopean jardunaldiak egiten ari dira azken hilabeteotan. Jardunaldi hauen inguruan zerbait gehiago jakin nahian Gasteiza hots egin dugu, Maitane daukagu telefonoz bestalde; beraz, Gasteizko bilgune feministako kidea da, ezta?

ESATARIA 2. Egun on, Maitane, zer moduz?

MAITANE. Egun on, eguerdi on, bai.

ESATARIA 2. Maitane, zuek hitzaldiak, tailerrak, kalejirak ... mota guztietako ekitaldiak antolatu dituzue, ezta?

MAITANE. Bai, hala da. Egiten duguna izaten da ostegunero baino hilabeteko azken ostegunean programatzen dugu, hilabetean behin, eta abendutik hasita ekaina arteko egitaraua daukagu osatuta.

ESATARIA 2. Oso ondo. Eta zein helbururekin, Maitane?

MAITANE. Jo ba, helburu nagusia zera da gu jorratzen ari garen gaietako batzuen inguruan hausnarketa kolektiboa egitea. Eta bestetik, elkartu eta gozatzeko aukera ere izatea. Joan den astean izan genuena maitasun erromantikoa inguruko tailerra izan zen; maitasun erromantikoa eta arma-ereduei kritika egiten dien saioa, bai? San Balendin egunarekin eta lotu izan nahi genuen.

ESATARIA 1. Eskerrik asko gurekin egoteagatik.

MAITANE. Bueno, ba, eskerrik asko zuei.

ESATARIA 2. Pintxo-potearekin aspertuta bazaudete ja, badaukazue nora jo bestelako planen bila: hitzaldiak, tailerrak, erakusketak ... Denetik eta denentzat ikusteko eta gozatzeko, Euskal Herriko ostegunetan, Manu.